

HERRI MUSIKA 3. JARDUNALDIAK

Herri musika eta herri dantza hezkuntza sarean

Oiartzun 2004-11-27 eta 28

Herri Musikaren Txokoa, Euskal dantzarien Biltzarra eta Ikastolen Federazioak antolatuta.



Herri Musika 2. Jardunaldietan parte hartu genuen artean behin eta berriz aipatu genuen herri musika eta dantza bizirik jarraitzea oso zaila izango dela hezkuntza sareko ikastetxeen sistema eta zentro horietako egitarauetan gai honi zer nolako garrantzia eta tratamendua ematen zaion kontuan hartzen ez bada.

Orduan egin ziren mintegietako solasaldi eta eztabaidetan gai honen arlo horrek sortu zuen interesa eta hartu zuen garrantziak bultzatu gintuen bide horretatik jarraitzera eta 3. Jardunaldietarako gaitzat proposatzera. Hori dela eta, Euskal Dantzarien Biltzarra eta HM Txokoak Ikastolen

Federazioari proposatu genion Jardunaldi hauek gurekin batera antolatzea gai monografiko hau ildotzat harturik.

Aurrekoetan bezala, 3. Jardunaldietarako gai honetan eskarmentu handiko profesionalen eta arlo ezberdinetako euskal aditu eta jakintsuen gidaritza izango dugu. Bestalde, eta gure orain arteko joerari eutsiz, kanpo aldera leiho bat ireki nahi dugu. Horretarako oraingo honetan Kataluniako esperientzia ezagutuko dugu bertako "Aula de la Música Tradicional i Popular de Catalunya" eskolaren bitartez.

Egitaraua erabat osaturik ez badago ere hemen aurkezten dugu horren aurrerapena:

EGITARAU ASMOA

2004-11-27, Larunbata:

Mintegia: Iñaki Irigoien, Josu Larrinaga, Emilio X. Dueñas, Jon Maia eta beste zenbait adituk landuko dute "Herri musika eta herri dantza hezkuntza sarean" gaia.

Mahai-ingurua: mintegia-ekin jarraitzeko, hitzaldien ondoren galde-erantzunei emango zaie txanda eta eztabaida zabala proposatuko hizlariekin.

Jaialdia: Dantza eta musika emanaldia.

2004-11-28, Igandea

Tailerrak: Larunbatean eztabaidatutakoak praktikatzeko aukera emango duen dantza tailerra, dantzan ikusi, ikasi eta irakasteko.

Erromeria: Urteroko lege, jardunaldiak festa giroan bukatzeko, erromeria egingo da igande arratsalde, inor dantzarako gogoz gelditu ez dadin. Aurtengoan eskola ingurutako jendea izango da protagonista.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udazkeneko kontzertua

2004ko urriaren 9an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Uda garaia joan zaigula eta inork penatuta jarraitzen badu, urtaro honetarako ere antolatu dugu gure etxearen zigilu bihurtzen ari den kontzertutxoa, nahi duenaren alaigarri. Ez da oso itxurosoa izango guk esatea baina besterik ezean, orain artekoetan musika ona gozatuz une ederrak pasa izan ditugula eta, oraingo honetan bermatua daukagu festa. Maila handiko musikariak kontzerturako, eta ondorengo afaritara oraindik etorri ez bazara, aukera paregabea giro jatorrean (musika, dantza eta kantu giroan alegia) jarduteko. Beti bezala, bi ataletan: Euskal Herritik "Txanbezpel" lapurtar fanfarrea, eta atzerritik, Gaztelatik oraingo honetan, Paco Díez.

TXANBEZPEL TALDEA

Talde honek "Txanbezpel" izena du, izen hori bi hitzez osatua baita txanbela da erabiltzen duten musika tresna, ezpelez egina; gainera, beraien biltokia Ezpeletan dute.

Duela hamar bat urte hasi ziren eta emeki emeki xutik eman dute beraien jokaera, hau berezia baita tresnen

erabilpenaz batetik, bere kantu bildumaz bestetik.

Xedea, txanbela ez desagertzea dute, segi dezan beti hastapenean bezala kantuari laguntzen.

Taldearen partaideak:

ROBERT J.B. eta ITOIZ Benat : txanbela eta kantua

udazkeneko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 12 euro.

SELVAT Alain: ttunttuna, panderoa, atabala eta kantua
ETCHEVERRY Pierre : hauspo soinua eta kantua
COUADOU René: tuba eta kantua

Ikusiko dituzue urte guziz bestakari herri hauetan: EZPELETA eta BAIONA (Lapurdi), ATARRATZE (Xiberoa), OTSAGI (Nafarroa), ALLES (Asturias).



PACO DIEZ

GAZTELA-LEONGO MUSIKA TRADIZIONALA

1961.ean Valladolideko Piñel de Abajo herrian jaioa, Gaztelaren barne-barnean nekazari familiar hazi izan da, ozta-ozta iritsi dituelarik haurtzaroan, desagertzeaz zen giro horretako sentipen eta pentsamoldeak.

Frantzes filologian lizentziatua, 80ko hamarkadan urte bare bat egin zituen Bretainian (Brest eta Lorient) lanean, eta bertako folk talde eta kultura tradizionalaren inguruko zentruen harreman hestua lortuz. Ordurako, 1975.etik hasia zen Gaztela eta Leongo musika tradizionala berreskuratu eta zabaltzeko lanetan, eta geroztik beti izan da zalea bere lurraldeko musikaz gainera besteetako ere ezagutu eta haiekin aberastekoa.

1980.ean La Bazanca taldea sortu zuen, eta bertan hartu zuten Paco Díez eta bere ahots, gitarra, zanfona, gaita eta perkusio tresnek gaur duten nortasuna, beti ere etxez etxe



egindako herri jakituriaren bilketak emandako aberastasunean oinarriturik.

Bakarlari gisa, gaur, musika judu-hispaniarraren erakusle nabarmenetakoa da, La Bazancarekin 1983.ean "Canciones Sefardíes" diskoa grabatu zuenean hasi eta 2000.ean bakarrean "Romanzas de Amor" diskora arteko ibilbidea horren lekuko.

Denera 11 disko grabatu ditu bestalde. Baina bere espezialitatea, penintsulako herri soinu-tresnena da, eta milaka kontzertu eta konferentzia emana da dagoeneko Frantzian, Alemanian, Italian, Grezian, Suedian, Eslovenian, Bulgarian, Israelen, Perun, Txilen, Argentinan, Paraguayan, Estatu Batuetan eta abarretan.

Paco Díez izen handi bat baino gehiago ere bada folkloreak munduan.



Bisita bereziak

*Aurtengo uztailean
Barcelonako **SINERA**
abesbatza HM Txokora
etorri zen bisitan.
Giroa oso atsegina
izan zen eta bukaera
gisa katalandarrek kantu
saio zoragarria eskeini
ziguten, beren herri
kantekin batera abesti
euskaldunak ere
emanez.*

ALBOKA, ZAHARBERRITUA

Tresna honen alde ugari miatu ditu Manu Gojenolak Albokaren alde batzuk liburuan, "Herri Musika Bilduma"-ren bigarren zenbakia.

Irailaren 26an aurkeztuko da, Hernaniko XI. Albokari Topaketen egitarauaren baitan, Manu Gojenola bizkaitar albokariak idatzitako Albokaren alde batzuk liburu berria. Oso gertaera pozgarria hauxe, batipat soinu-tresna honen inguruan lan gutxi baita argitaraturik, eta are gutxiago honelakorik. Guretzat gainera, poza bi halakoa da, Gipuzkoako Dultzaina liburua-ekin aurtengo maiatzean abian jarri genuen proiektua sendotzera baitator, gure Txoko honen lan idatzien argitalpen saila izan nahi duen Herri Musika Bilduma honi bigarren maila emanaz. Hirugarren eta laugarren zenbakiak ere martxan dira.

Manu Gojenola, Estatu Batuetan jaiotako bizkaitarra, aspaldidanik dabil albokaren munduarekin zale-tuta, eta urte askotako lanaren emaitza dugu hau. Liburuan ikus daitekeenez, tresnaren inguruan idatzi direnak goitik behera arakatzear gain, albokari eta alboka-zale zaharrekin zuzenean egindako elkarriketak izan ditu iturri nagusi: Leon Bilbao, Silbestre Elezkano "Txilibrin", Eujenio Etxebarria, Juan Otxandio, Emilio Sagarna,...

Honela bada, bi atal nagusi ditu Albokaren alde batzuk honek. Lehenengoan alboka eta albokariaren inguruko informazio zabala biltzen da: egin diren ikerketak, kokagune musikala eta erabilera soziala (erromeria inguru gehienbat), esparru geografikoa, errepertorioari buruzkoak, tresnaren izena eta jatorria, aipamen historikoak, gerra aurreko berpizkunde eta albokari tradizionalen nolakoa, gerra osteko albokari berrien arteko zubia, gaurko egoera,... Informazio honek gaur egun soinu-tresna honi buruz gure artean ematen diren eztabaida eta zalantza asko argitzen lagunduko du.

Bigarren atalean berriz, zuzenean egindako elkarriketa horien medioz, batez ere Bizkaian ezagutu ditugun albokari tradizionalen biografia eta haiek zituzten ikuspegiak jaso ditu. Hau ere behar-beharrezkoa zitzaigun dokumentazio lana. Den-dena ere, albokaren mundua ezagutzeko ezinbesteko tresna, zalantzarik gabe.


BISITARI KOPURUA

Ekaina: bisitari kopurua: 185
Antolatutako taldeak: 8

Uztaila: bisitari kopurua: 150
Antolatutako taldeak: 6

Abuztua: bisitari kopurua: 101
Antolatutako taldeak: 2

Bisitari kopurua irailera arte: 6.630



Leon Bilbao (arg. "Albokaren alde batzuk" liburutik)

ALBOKARIEN HERNANIKO 11. TOPAKETA

Hernani Musika Eskolak eta bertako Alboka taldeak antolaturik 2004ko irailaren 25 eta 26an ospatuko dira. Aurrekoetako eskema jarraituz, edizio honetarako egitarau interesgarria prestatu dute:

irailaren 25 larunbatean

19etan Biteri Kultur Etxeko Aretoan
Kukuma bizkaitar taldearen emanaldia

Irailaren 26 igandean

10,30ean, Udaletxeko arkupetan:

Albokariaren elkartea.

11,00tan: Albokari taldeen **kalebueltak** herriko alde zaharreko kaleetan barrena.

Ezkiaga Pasealekuan

Albokagile **azoka-erakusketa.**

11,45etan Sandiusterrri aretoan Manu Gojenola bizkaitar albokariak idatzitako

"Albokaren alde batzuk" liburu berriaren aurkezpena.

12,30ean, Ezkiaga Pasealekuan (Tilosetan):

ALBOKALDIA. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik etorritako albokari taldeen emanaldia.

14,30ean, Santa Barbara Elkartean:

Herri bazkaria albokariekin Santa Barbara Elkartean

18,30ean,

Albokariaren **agurreko kalejira** Hernaniko alde zaharreko kale eta plazatan.

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

